



2.- La transmisión del mensaje de Jesús

‘Un pueblo que evangeliza’

“ Quiero recordar ahora la tarea que nos apremia en cualquier época y lugar, porque «no puede haber auténtica evangelización sin la proclamación explícita de que Jesús es el Señor», y sin que exista un «primado de la proclamación de Jesucristo en cualquier actividad de evangelización» [...] La evangelización es tarea de la Iglesia. Pero este sujeto de la evangelización es más que una institución orgánica y jerárquica, porque es ante todo un pueblo que peregrina hacia Dios” (EG 110-111).

La tarea y misión de evangelizar corresponde a todos los miembros de la comunidad eclesial. Aunque frecuentemente muchos mensajes reduzcan la comunidad eclesial a la jerarquía eclesiástica, a partir del Concilio Vaticano II ha tomado importancia el papel y misión de los laicos y laicas en la vida de la Iglesia y en su misión evangelizadora. Por tanto se nos invita a impulsar la conciencia evangelizadora en el conjunto de las personas que forman nuestra Iglesia Diocesana.

Percibimos la necesidad de un nuevo y continuo anuncio del mensaje de Jesús, mediante la palabra y la acción. “Evangelizar es hacer presente en el mundo el Reino de Dios” (EG 176). Se trata de algo urgente, porque en nuestro contexto social hay personas que han vivido la fe y ahora están alejadas de ella, y porque hay generaciones que nunca han oído hablar de Jesús de Nazaret. Ahora bien, nuestro anuncio es manifestación de nuestra propia vocación y vivencia. Es nuestra misión. No nos podemos extrañar del desconocimiento, más que rechazo, de la persona y del mensaje de Jesús. Nosotros también escuchamos las palabras del apóstol Pablo como acicate para cumplir el mandato del Señor: “¿Cómo van a creer en Él si no les ha sido anunciado?” (Rom 10,19).

Muchas personas conservan la imagen de Jesús de Nazaret que adoptaron siendo niños. Su fe responde a recuerdos infantiles poco evolucionados. Por esto transmitir el mensaje de Jesús, hoy y aquí,

Plan Diocesano de Evangelización

también es actualizar lo que estas personas son y viven, sea cual sea su etapa en el camino de la fe. El Evangelio sigue siendo un gran regalo recibido y una llamada a transmitirlo, asumiendo las circunstancias y retos de nuestro tiempo.

Cada uno de nosotros necesita ser evangelizado para renovar y profundizar constantemente nuestra adhesión a Jesucristo, para anunciarlo y ser constructores de su Reino. Somos conscientes de ello, porque así lo hemos señalado en nuestro periodo de discernimiento, al constatar algunos **aspectos negativos**, de entre los cuales destacamos algunos ejemplos:

- **nos faltan procesos** o itinerarios de educación en la fe: no hay continuidad después de la Primera Comunión...;
- **han desaparecido** los Catecumenados de Adultos;
- **nuestras comunidades** no siempre muestran el entusiasmo y la creatividad necesaria para la transmisión de la fe, y no somos capaces de testimoniar nuestra experiencia personal;
- **la nueva realidad de muchas familias** cristianas dificulta a menudo su aportación fundamental en la Evangelización.

Tampoco podemos olvidar el camino realizado o los logros alcanzados, que son el fruto de muchas iniciativas y múltiples esfuerzos pastorales compartidos. Nuestra fe está viva y por ello en nuestra Diócesis también se reconoce, por ejemplo, que:

- **se vive como un acierto** la Catequesis Familiar;
- **se ha avanzado** en la elaboración de materiales para la catequesis;
- **hay encuentros e iniciativas** de formación cristiana que han sido muy positivos;
- **se ha tomado conciencia** de la necesidad de la lectura personal y orante del Evangelio de cada día;
- **se constata una alta participación** en grupos de Oración;
- **se da una mayor implicación** de los centros educativos en la tarea pastoral y en la transmisión, haciendo de la educación una plataforma de evangelización; asimismo se han realizado avances en la coordinación entre Unidades Pastorales y centros educativos.

La transmisión del mensaje de Jesús se realiza desde distintos caminos. Unos conducen a las personas que, por las razones que sean, se han alejado de la fe y de la Iglesia. Otros conducen a nuestra propia realidad, para que la fe sea un elemento constitutivo de nuestras vidas. Todos ellos se realizan desde la conciencia de la presencia activa de Jesús en la comunidad que trabaja en su nombre (cfr. Mt 28,19-20). De aquí que, desde la perspectiva de la transmisión de la fe, en el presente Plan Diocesano de Evangelización **se apueste por:**

1. Mantener una actitud de escucha y diálogo con nuestra sociedad, atendiendo a su pluralismo ideológico, cultural y religioso, dejándonos interpelar por sus anhelos e inquietudes.

2. Diseñar y trabajar los elementos necesarios para que el primer anuncio del mensaje de Jesús llegue a nuestra sociedad.

3. Cuidar, escuchar y acoger a las familias, teniendo en cuenta su diversidad en la sociedad actual (AL 200-258), y acompañarlas en su misión de transmitir la fe (AL 259-290).

4. Avanzar en la actualización y comunicación de la Buena Noticia del Evangelio, incluyendo el cuidado de la “casa común” (cfr. LS), apostando por las redes sociales y otras tecnologías para la comunicación, y perfilando sus destinatarios: niños, jóvenes, adultos, anuncio a los llamados “alejados”...

Desarrollaremos estas apuestas para la transmisión de la fe a través de todas las estructuras de la Iglesia diocesana, como son las parroquias, la familia, los centros educativos, entidades sociales, los centros para el diálogo con la sociedad, las cofradías...



2.- Jesusen mezuaren transmisioa

‘Ebanjelizatzen duen herria’

“ Edozein garaitan eta tokitan lehentasunezkoa dugun egitekoa gogora ekarri nahi dut orain, «ezin da [eta] egiazko ebanjelizatzerik egon Jesus Jauna dela *esplizituki hots egin gabe*» ezta «ebanjelizatze ekintza guztietan Jesu Kristo aldarrikatzeak lehentasuna» ez badu ere [...] Ebanjelizatzea Elizaren zeregina da. Baina ebanjelizatzearen subjektua erakunde organiko eta hierarkiko bat baino gehiago da, Jainkoarengana erromes doan herri bat delako batez ere” (EG 110-111).

Ebanjelizatzea, eliz elkarteko kide guztiei dagokien zeregin eta misioa da. Nahiz eta, sarritan, mezu askok eta askok eliz elkartea eliz hierarkiara murriztu, Vatikanoko II. Kontziliotik aurrera, laikoek Elizaren bizitzan eta misio ebanjelizatzailean duten eginkizun eta misioak garrantzia hartu du. Beraz, gure Elizbarrutia osatzen duten pertsona guztien sen ebanjelizatzailea bultzatzeko deia egiten zaigu.

Hitzaz eta egintzaz baliatuz, Jesusen mezuaren iragarpen berri eta jarraitua ezinbestekoa dela antzematen dugu. “Jainkoaren Erreinua munduan presente egitea da ebanjelizatzea” (EG 176). Premiazkoa da, gure gizarte testuinguruan makina bat lagunek fedea bizi izan duelako eta orain fedetik urrunduta delako, eta Nazaretoko Jesusi buruz ezer entzun ez duten belaunaldiak ere badirelako. Baina gure iragarpena geure bokazio eta bizipenaren adierazpena da. Geure misioa da. Ez dugu harritu behar jendeak Jesusen eta bere mezuaren berri ez duela -gaitzetsi egiten duela esatea baino zuzenago dela uste dugu- jakitean. Geuri ere Paulo apostoluaren hitzak entzutea dagokigu Jaunaren agindua betetzeko akuilu bezala: “Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute?” (Erm 10, 14).

Hainbatek umetan ezagututako Nazaretoko Jesusen irudiari eusten dio. Beren fedea haurtzaroko oroitzapenei erantzuten die, ez du bilakaerarik izan. Horregatik, Jesusen mezua gaur eta hemen trans-

Elizbarrutiko Ebanjelizatze-Egitasmoa

mititzea, delako pertsona horiek direna eta bizi dutena gaurkotzea ere bada, edozein izanik ere bizi duten aldia fedearen bidean. Ebanjelioa jasotako opari handia da eta transmititzeko deia, gure garaiko inguruabar eta erronkak nork bere eginez.

Denok dugu ebanjelizatu beharra, Jesukristorekiko atxikimendua berritzeko eta sakontzeko, Jesukristoren berri emateko eta bere Erreinuaren eraikitzaile izateko. Horretaz jabetzen gara eta horrela adierazi dugu bereizmen-aldian, hainbat alderdi negatibo ikustean, esate baterako:

- **ez dugu fede hezkuntzarako prozesu** edo ibilbiderik: ez dago jarraipenik Lehen Jaunartzearen ostean...;
- **desagertu egin dira** Helduen Katekumenotzak;
- **gure elkarteek** ez dute beti erakusten fedearen transmisiorako ezinbestekoa den berotasun eta sormenik, eta ez gara gure esperientzia pertsonalaren berri emateko gauza;
- **kristau familia askoren** errealitate berriak ere sarritan zail bihurtzen du bere funtsezko ekarpena Ebanjelizazioan.

Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu ez egindako ibilbidea, ezta hainbat ekimen eta baterako makina bat ahalegin pastoralen emaitza diren lorpenak ere. Gure fedea bizirik dago eta horregatik gure Elizbarrutian, besteak beste:

- **Familia Katekesian** asmatu egin dugula uste da;
- **aurrera egin da** katekesirako lagungarrien prestaketan;
- **guztiz positiboak izan diren** kristau heziketarako batzar eta ekimenak garatzen dira;
- **eguneroko Ebanjelioa bakarka irakurtzea** eta berarekin otoitz egitea ezinbestekotzat jo izan da;
- **otoitz taldeetan jende ugari** parte hartzen du;
- **ikastetxeek gehiago esku hartzen** dute pastoral egitekoan eta transmisioan, hezkuntza ebanjelizaziorako plataforma bihurtuz; halaber, aurrerapenak izan dira Pastoral Barrutien eta ikastetxeen arteko koordinazioan.

2. jarduketa-ildoak

Jesusen mezuaren transmisioa hainbat bidetatik egiten da. Askotariko arrazoiengatik, fedetik eta Elizatik aldendu izan diren pertsonengana garamatza hainbat bidek eta beste batzuek geure errealitatera bertara, fedea gure bizitzen osagai izan dadin. Guztiak ere, bere izenean jarduten duen elkartean Jesus eraginkor agertzen deneko ustetik garatzen dira (ik Mt 28, 19-20). Horregatik, fedearen transmisioaren ikuspuntutik, Elizbarrutiko Ebanjelizatze-Egitasmo honetan, **alderdi hauek bultzatu nahi dira:**

1. Entzute eta elkarrizketan iraun gure gizartearekin, bere aniztasun ideologiko, kultural eta erlijiosoa aintzakotzat hartuz, bere irrika eta kezken interpelazioa onartuz.


2. Ezinbesteko bitartekoak eratu eta landu, Jesusen mezuaren lehen iragarpena gure gizarteko pertsonengana irits dadin.

3. Familiak zaindu, entzun eta babestu, gaur egun gizartean ikusten den aniztasuna kontuan hartuz (AL 200-258) eta fedearen transmisioan duten erantzukizunean lagunduz (AL 259-290).

4. Ebanjelioaren Berri Onaren gaurkotzean eta berri ematean aurrera egin, “denona den etxea zaintzea” ahaztu gabe (ik. LS), sare sozialak eta komunikaziorako beste hainbat teknologia garatuz, eta hartzaileak zehaztuz: haurrak, gazteak, heldua, iragarpena “urrundutakoak” deitutakoei...


Elizbarrutiko egitura guztiez -esate baterako, parrokiak, familia, ikastetxeak, gizartearekiko hartu-emanerako zentroak, gizarte erakundeak, kofradiak...- baliatuz garatuko ditugu fedearen transmisiorako apustu hauek.

Oharrak



A large white rectangular area with horizontal dotted lines for handwriting practice. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page, providing a guide for letter height and placement.

2. jarduketa-ildoak



A large white rectangular area with horizontal dotted lines, intended for writing or drawing. The lines are evenly spaced and run across the width of the rectangle. The background of the page is light blue with abstract, organic shapes.